

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	UGALKETARAKO ETA HARAGITARAKO UNTXI-PRODUKZIOA	Iraupena	90
Kodea	MF0282_2		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Untxi-produkzio intentsiboa	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makinak eta ekipamenduak (zeharkakoa)	Iraupena	90
	Hegazti-produkzio intentsiboko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0282_2 UGALKETARAKO ETA HARAGITARAKO UNTXIAK PRODUZITZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurrerako animalien kasuan (gizentzekoak eta ugalketarakoak), ustiategira iristen direnean arazo sanitarioak saihesteko behar dituzten zainketak zehaztea.

EI1.1 Untxi-espezieak produkzio intentsiboan izaten dituen gaixotasun infektuzio nagusiak deskribatzea.

EI1.2 Edozein animalia berri (gizentzekoa edo ugalketarakoa) ustiategira sartzean erabiltzen diren maneiuri sanitarioko neurri buruzko iruzkinak egitea.

EI1.3 Umetarako animaliak ustiategian hartzean eta horien egokitzealdian jarduteko irizpideak azaltzea eta ekintzak zerrendatzea.

EI1.4 Abeltzaintzako ustiategietan animaliak babesteko neurriak eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak aipatzea, aurrerako animaliak ustiategira iristen direnean jaso behar dituzten zainketekin loturik.

EI1.5 Ustiategitik kanpoko animaliak sartzeko kasu praktiko batean:

- Umetarako animalien harreraren eta alojamenduan hartu behar diren prebentzio-neurriak zerrendatzea.
- Animalien portaera arreta handiz behatzea ustiategira iristen denean.
- Gaixotasun-sintomak eta -seinaleak detektatzea, halakorik izanez gero.
- Lagin biologikoak hartzea baliabide egokiekien eta laborategira bidaltzeko prestatzea, behar izanez gero.
- Berrogeialdia egoki aplikatzea.
- Animalia produkzio-prozesuan sartzeko osasunaren aldetik normaltasuna egiaztatzea ondoren.

A2: Ugalketarako araldian eta estaltzearen aurreko aldiaren maneiatzea, ustiategiaren errendimendu optimoa lortzeko.

EI2.1 Adinarekin eta pisuarekin lotutako gutxieneko ezaugarriak zehaztea, baita unxi emeengan identifikatu nahi diren beste guztiak ere, ugalketa hasi aurretik.

EI2.2 Kunikulturaren ohiko moduan erabiltzen diren araldia detektatzeko metodoei buruzko iruzkinak egitea.

EI2.3 Eme bat estalketa naturalaren bidez estaltzeko jardun-protokoloa deskribatzea.

EI2.4 Untxi-produkzioan flusshing-a zer den azaltzea.

EI2.5 Ar gazte bat ugalketarako bihurtzeko gutxieneko adina identifikatzea eta ugalketarakotzat identifikatzeko ezaugarriak deskribatzea.

EI2.6 Estalketa naturalaren prozesuan arraren portaera zehaztea, baita bere erabilera-maiztasuna ere, eraldia bermatzeko eta hazitarako untxien ugalketa-potentziala optimizatzea.

EI2.7 Ernal-haziaren bilketan eta hazi-dosiak egitean izaten diren faseak zerrendatzea.

EI2.8 Ernal-haziaren bilketan eta hazi-dosiak egitean erabiltzen den materiala eta ekipamenduak zerrendatzea.

EI2.9 Ustiategitik ugalketarakoak (arrak eta emeak) desagerraraztean jarraitzen diren irizpideak deskribatzea, adinaren eta produktibitatearen jaitsi izanaren faktoreei jarraikiz.

EI2.10 Untxitegi batean, banden araberako ugalketa-maneiuaren sistemaren oinarriak deskribatzea.

EI2.11 Abeltzaintzako ustiategietan animaliak babesteko neurriak eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak aipatzea, ugalketarako maneiuri dagozkionak.

EI2.12 Estalketa naturalaren kasu praktiko batean:

- Emea estaltze-kaiolan (arraren kaiolan) jartzea estalketa naturala gertatzeko.
- Emea egoki heltzea, baldin eta ugalketarako arrari estaltzen uzten ez badiu.
- Estaltzea burututakoan emea kaiolatik ateratzea.

A3: Ernaldian, erditzean eta esnealdian beharrezkoak diren jardunak kontrolatzea, ondorengo asko, osasuntsuak eta sendoak lortzeko.

EI3.1 Ernaldia diagnostikatzeke metodoak azaltzea.

EI3.2 Erditzero ohatzearen erosotasun-baldintzak deskribatzea.
EI3.3 Emeei egin beharreko zainketen eta kontrolen jardunak zerrendatzea.

A4: Lehengaien kontserbazioko, elikadura-anoak prestatzeko, banatzeko eta gizentzeko jardunak planifikatzea, animalia bakoitzaren premia fisiologikoak ase eta produktioa optimizatzearen.

EI4.1 Untxiaren digestio-aparatuaren zatiak eta fisiologia deskribatzea.
EI4.2 Untxi-produkzioan erabiltzen diren elikagaiak eta lehengai nagusiak zerrendatzea.
EI4.3 Lehengaiak eta pentsu konposatuak kontserbatzeko metodorik onena zein den erabakitzeke irizpideak deskribatzea, elikagaien freskotasuna denbora gehiagoz bermatzearen.
EI4.4 Aziendarentzako elikagaiak bete beharreko etiketa-arauak deskribatzea.
EI4.5 Untxitegi batean, banden araberrako produktio-maneiuaren sistemaren oinarriak deskribatzea.
EI4.6 Animalia baten elikagai-kontsumoaren premiak kalkulatzeko ugalketaldi jakin batean.
EI4.7 Elikagaiak banatzeko eta kontsumoa kontrolatzeko teknika ohikoenak zehaztea.
EI4.8 Animalia baten ur-kontsumoaren premiak kalkulatzeko ugalketaldi jakin batean.
EI4.9 Gizentzeko sortak egoki prestatzea, untxitegi batean dauden bolumenaren, gainazalaren, ingurumen-parametroen eta urte ezberdineko untxien konbinazioak kontuan izanik.
EI4.10 Animalia-sorta baten elikagaien kontsumoa eta pisu-hazkundera kontrolatzea, pisatuta.
EI4.11 Abeltzaintzako ustiatzeetan animaliak babesteko neurriak eta laneko arriskuak prebenitzeko, ingurumena babesteko eta elikadura-segurtasuneko neurriak adieraztea, elikagaien kontserbazio-prozesuei, anoak prestatzeari, banatzeari eta gizentzeari dagozkionak.
EI4.12 Gizentzeko elikadura-anoak prestatzeko eta banatzeko kasu praktiko batean:
- Lehengaiak eta pentsua metatzeko premiak zehaztea, produktio-ziklo bat burutzeko.
- Elikadura-anoak prestatzea eta banatzea.
- Ustiatzeetan elikagai-kontsumoaren kontrol-erregistroak egitea.

A5: Ustiatzearen programa sanitarioan zerrendatutako jardunak ezagutzea, baita sendagaiak egoki kontserbatzeko eta biltegitzeko modua ere, erregistro-sistemen bitartez eta behar besteko arreta eta baliabideak eskainita.

EI5.1 Animaliak ustiatzeira iristen direnean egin beharreko prebentzioko tratamenduak eta kontrol-ekintzak zerrendatzea, azkarrago egokitu eta hobeto garatu daitezzen.
EI5.2 Prebentzioko kontrol-ekintzak identifikatzea eta txertaketak eta desparasitazioak deskribatzea.
EI5.3 Produktioaldi bakoitzean aplikatu beharreko txerto-motak eta txertaketa-programak aipatzea.
EI5.4 Produktioaren fase bakoitzean ohikoenak diren osasunarekin lotutako kanpo-seinaleak deskribatzea.
EI5.5 Sendagaien biltegitzeko eta kontserbazioko modu egokiak deskribatzea, hondatu ez daitezzen.
EI5.6 Aplikatu beharreko tratamenduen zerrenda baten aurrean, bakoitzak behar duen material egokia eta emateko bidea identifikatzea.
EI5.7 Abeltzaintzako ustiatzeetan animaliak babesteko neurriak eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak adieraztea, ustiatzeiko programa sanitarioarekin eta sendagaien kontserbazioarekin loturik daudenak.
EI5.8 Osasun-jardunaren kasu praktiko batean:
- Animalia bat behar bezala immobilizatzea, betiere animalien ongizaterako finkatutako protokoloen arabera.
- Laginak hartzea, prestatzea eta laborategira bidaltzea.
- Albaitariaren errezetak interpretatzea.
- Agindutako sendatzeko tratamenduak ematea adierazitako bideak erabilia eta kasu bakoitzean material egokia erabilia.
- Emandako tratamenduak egoki erregistratzea.
- Errezetak artxiboetan kontserbatzea araudiari jarraikiz.

Edukiak

1. Untxiak. Arrazak Amarengandiko eta aitarengandiko lerroak. Morfologia eta fisiologia.

- Untxi-arrazen ezaugarri orokorrak.
- Amarengandiko eta aitarengandiko lerroak.
- Kanpoko morfologia.
- Digestio-aparatuari buruzko oinarriko ezagutza: digestio-aparatuaren atal nagusien identifikazioa.
- Elikagaien digestioa eta digerigarritasuna.
- Arnas aparatuari, zirkulazio-aparatuari, lokomozio-aparatuari eta azalari buruzko oinarriko ezagutza.

2. Emearen eta hazitarako arren ugalketa-zikloa.

- Ugalketa-aparatuari buruzko ezagutza orokorrak.
- Ugalketaren fisiologian sartzea.
- Pubertasuna: hura erregulatzen duten faktoreak.
- Ziklo obarikoaren iraupena eta ezaugarriak.
- Araldia - Obulazioa.
- Arazo funtzional ohikoenak obulazioan.
- Araldia detektatzeko metodoak.
- Untxikumeak berriz banatzea.
- Esnealdia: esnealdiaren iraupena; esnealdiaren zaintza espezifikoa; titia kentzearen maneiua.
- Arren ugalketa-aparatuari buruzko ezagutza orokorra.

- Ugalketaren fisiologian sartzeari: ugalkortasunean eragina duten faktoreak.
- Hazitarako arren zainketak.
- Hazitarako arren ugalketa-portaeraren faktore etologikoak.

3. Untxikumea.

- portaera eta ezaugarriak jaiotzen denean.
- Kumeen gaixotasunak.
- Identifikazioa eta erregistroa.
- Identifikazio-sistemak.
- Identifikazioa sistema artifizialen bidez.

4. Untxien elikadura (aurrerako animalien, ugalketarako, kumeen eta gizentzeko kasuan).

- Elikagai-motak.
- Untxien elikaduran garrantzitsuenak diren elikagai kontzentratuak eta bazka-espezie eta -barietateak.
- Bazkak kontserbatzeari buruzko oinarriko ezagutza: pentsuak prestatzeko, nahasteko eta banatzeko ekipamenduak.
- Elikagaiak banatzeko sistemak eta jarraibideak.
- Untxien elikadurari dagokionez, uraren ezaugarriak eta garrantzia.
- Kalkulua eta premiak.
- Uraren desinfekzioa.

5. Untxi-produkzioan gaixotasunen prebentzioko eta tratamenduko jardun praktikoak. Medikamentuak.

- Animaliak aztertzea eta behatzea.
- Gaixo dauden animaliak detektatzea.
- Tratamendu higieniko-sanitario propedeutikoak eta terapeutikoak.
- Sendatzeko eta/edo prebentzioko tratamenduen aplikazioa.
- Txerto-programak eta barneko eta kanpoko desparasitazio-programak aplikatzea.
- Animaliak ustiatzera iristen direnean egin beharreko prebentzioko tratamenduak.
- Tratamenduen erregistroa.
- Laginak hartzeko baldintzak.
- Sendagaiak aplikatzeko sistemak eta moduak.
- Sendagai-tratamenduak hartu gabe egon beharreko aldia.
- Farmakologikoki aktiboak diren konposatuak hondakinak.

6. Animalia-ongizatea. Antolakuntza eta lan-errutinak.

- Animalien ongizatea galtzea: behar ez bezala maneiatzea, estres-egoerak.
- Laneko metodo orokorrak: errutinak
- Animaliak immobilizatzeko sistemak.

7. Lotutako araudia. Programa informatikoak.

- Arauz araututako jardunak, batik bat, ingurumena babesteari, laneko arriskuak prebenitzeari, animalien ongizateari eta elikagaien segurtasunari dagokienez.
- Jarduerarekin lotutako programa informatikoak ezagutzea. Maneiua.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Untxi-produkzio intentsiboa